

GIG 52

KIPUTZ AZTARNATEGI KUATERNARIOABALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,33**KALTEBERATASUN-MAILA: **2****GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA**

Kiputz aztarnategia Arno mendiaeren ekialdean dago, eta Behe Kretazeoko kareharri urgondarretan eratutako barrunbe karstiko bat da. 6 metro inguruko sakonera duen leize bat da Kiputz (bertikala dela, alegia), eta tranpa natural moduko bat izan zen inguru hartan bizi izan zen faunarentzat duela 20.000-15.000 urte; Kuaternarioan, beraz, azken glaziazio handian.

Leizeko betekin sedimentarioak 4,5 metro inguruko lodiera du, eta hartan, zenbait maila ageri dira nahasita, hala nola buztin-mailak, kare-mailak eta hormetatik beraietatik eroritako blokeen bretxak. Barrunbea 2002. urtean aurkitu zuten, eta zenbait indusketa-kanpaina egin ondoren, Kantauri itsasoaren ertzean kanporatu den Goi Pleistozenoko ugaztun-hezurren kontzentrazio handienetako bat ateratzea lortu da. Guztira 13.000 hezur baino gehiago berreskuratu dira, eta haietan oinarrituta orain gauza ziurra da han egon zirela (eta hil), beste zenbait animaliaz gain, 48 orein, 23 elur-orein eta 18 bisonte. Hain zuzen ere, 900 kilo inguruko estepako bisonte heldu batek utzi digu pieza fosil ikusgarriena: adar-mutur batetik bestera 90 cm luze den gazezur bikaina, Iberiar Penintsula osoan oso-osorik aurkitu den bakarra.

Lurzorua, jatorri karstikokoa, alkalinoa da, eta horri esker kontserbatu dira hezurak hain ondo. Adin horretako aztarnategi gehienetan ez bezala, Kiputzen ez dago giza jardueraren arrastorik batere, eta horrexek egiten du berezi. Izan ere, hori horrela izateak ohiz kanpoko bihurtzen du leize honetan kontserbatutako fauna, garai hartan inguruko ekosisteman zeuden espezieen lagin adierazgarritzat har daitekeenez.

NOLA BERTARATU

Ezin da leizera sartu.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Eusko Jaurlaritzak material arkeologiko eta paleontologikoak gordetzeko Intxaurren duen biltegia.



Kiputzeko bisonte-gazezur ezaguna, berreginda.

**EZ DAGO KOKALEKU
ZEHATZA EMATERIK,
ESPOLIAZIOA GERTATZEKO
ARRISKUA DAGOELAKO
ETA AZTARNATEGIA ITXITA
DAGOELAKO.**